

**216/2016 EBAZPENA, OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIARENA. HONEN BIDEZ ZERRENDAK UNEORO EGONGO DIRELA ZABALIK ADIERAZTEN DA. ZERRENDA HORIEN BIDEZ OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ERIZAINZAKO UNIBERTSITATE ESKOLAKO IRAKASLE LANPOSTUAK ZERBITZU-ERAKUNDEEN ARTEAN ZERBITZU-EGINKIZUNEN /ALDI BATERAKO BARNE SUSTAPENAREN BIDEZ BETETZEN DIRA.**

Osakidetza Giza Baliabideetako zuzendariaren martxoaren 1eko 70/2016 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Erizaintzako Unibertsitate Eskolako irakasle lanpostuak zerbitzu-erakundeen artean zerbitzu-eginkizunen /aldi baterako barne sustapenaren bidez betetzeko zerrendak egiteko epea ireki zen.

Osakidetza Giza Baliabideetako zuzendariaren uztailaren 1eko 201/2016 Ebazpenaren bidez, zerbitzu-erakundeen arteko zerbitzu-eginkizunen bidez/aldi baterako barne-sustapenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Erizaintzako Unibertsitate Eskolako irakasle-lanpostuak betetzeko onartutako eta baztertutako hautagaien behin-betiko zerrenda onartzen da.

Aurreko paragrafoan aipatutako Ebazpenak onartutako zerrenden edukia kontuan izanik eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Erizaintzako Unibertsitate Eskolaren irakasle-lanpostuan betetzeak eskatzen duen bizkortasuna aintzat hartuz, eta baita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzak 9ko Erabakian ezarritakoa ere, zerrenda horiek uneoro zabalik egotea beharrezkoa dela kontsideratzen dugu, eskabide berriak sartzeko helburuarekin.

Azaldutako guztiagatik, indarreko legeriak emandako ahalmek langileei buruz ezarritako baldintzekin bat etorritik, Zuzendaritza honek

## **EBAZTEN DU**

**Lehenengo.-** Zerrendak uneoro egongo direla zabalik adieraztea. Osakidetza Giza Baliabideetako zuzendariaren martxoaren 1eko 70/2016 Ebazpenaren bidez deitutako Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Erizaintzako Unibertsitate Eskolako irakasle lanpostuak zerbitzu-erakundeen artean zerbitzu-eginkizunen /aldi baterako barne sustapenaren bidez betetzeko.

**RESOLUCIÓN 216/2016, DEL DIRECTOR DE RECURSOS HUMANOS DE OSAKIDETZA, POR LA QUE SE DECLARAN PERMANENTEMENTE ABIERTAS LAS LISTAS PARA LA PROVISIÓN, MEDIANTE COMISIÓN DE SERVICIOS/ PROMOCIÓN INTERNA TEMPORAL ENTRE ORGANIZACIONES DE SERVICIOS, DE PUESTOS DE PROFESOR/A DE LA ESCUELA UNIVERSITARIA DE ENFERMERÍA DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD.**

Mediante la Resolución 70/2016, de 1 de marzo, del Director de Recursos Humanos de Osakidetza se procedió a la apertura de plazo para la elaboración de listas para la provisión mediante comisión de servicios/ promoción interna temporal entre organizaciones de servicios, de puestos de Profesor/a de la Escuela Universitaria de Enfermería de Osakidetza-Servicio vasco de salud.


Mediante la Resolución 201/2016, de 1 de julio, del Director de Recursos Humanos de Osakidetza se procede a aprobar el listado definitivo de aspirantes admitidos y excluidos para la provisión, mediante comisión de servicios/ promoción interna temporal entre Organizaciones de servicios, de puestos de Profesor/a de la Escuela Universitaria de Enfermería de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Teniendo en cuenta el contenido de los listados aprobados por la Resolución citada en el párrafo anterior y la agilidad que requiere la cobertura de puestos de Profesor/a de la Escuela Universitaria de Enfermería de Osakidetza-Servicio vasco de salud, así como lo dispuesto en el Acuerdo de 9 de mayo de 2011 del Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se considera necesario que estos listados permanezcan permanentemente abiertos para la incorporación de nuevas solicitudes.

Por lo expuesto, y en uso de las facultades en materia de personal atribuidas por la legislación vigente, esta Dirección

## **RESUELVE:**

**Primero.-** Declarar permanentemente abiertas las listas para la provisión, mediante comisión de servicios/ promoción interna temporal entre organizaciones de servicios, de puestos de Profesor/a de la Escuela Universitaria de Enfermería de Osakidetza-Servicio vasco de salud convocadas por la Resolución 70/2016, de 1 de marzo, del Director de Recursos Humanos de Osakidetza.



Zerrendak uneoro egongo dira zabalik eskabide berriak sartu ahal izateko. Horrela bada, urtean zehar jasotako eskabideak hurrengo urteko lehenengo hiruhilabetekoan barematuko dira baldin eta lehenago aipatutako 2016/70 Ebazpenak agindutako betebeharrak betetzen badituzte.

Barematu arte, eskabideak aurkeztutako dataren arabera ordenatuko dira eta, egun berean aurkeztuak balira, adin handiagoaren irizpidea aplikatuko litzateke lanpostu bat betetzeko erabili beharra balego, Osakidetzako Giza Baliabideetako zuzendariaren uztailaren 1eko 201/2016 Ebazpenaren zerrendak agortu egin direlako.

**Bigarrena.-** Zerbitzu-erakundeeteko iragarki-taulan eta Osakidetzako web-orrian argitaratzeko agintzea.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen arabera Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak.

Las listas estarán abiertas permanentemente, de forma que las solicitudes que cumplan los requisitos descritos en la citada Resolución 70/2016 recibidas a lo largo del año serán baremadas en el primer trimestre del año siguiente.

Hasta que no se produzca su baremación, las solicitudes se ordenarán por su fecha de presentación, y, en el caso de que se presenten en el mismo día, se aplicará el criterio de mayor edad, si resultara necesario acudir a ellas para la cobertura de una plaza porque se hayan agotado los listados contenidos en la Resolución 201/2016, de 1 de julio, del Director de Recursos Humanos de Osakidetza.

**Segundo.-** Ordenar su publicación en los tablonos de anuncios de las Organizaciones de servicios así como en la página web de Osakidetza.

Contra la presente Resolución podrá interponerse Recurso de alzada ante el Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes, de conformidad con lo dispuesto por la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

**Vitoria-Gasteizen, 2016ko uztailaren 13an/En Vitoria-Gasteiz, a 13 de julio de 2016**  
**Iz. /Fdo.:**



Osakidetza

Jose Maria Armentia-Magazaga  
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA  
DIR. JOSÉ MARÍA ARMENTIA-MAGAZAGA

**OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA**  
**DIRECTOR DE RECURSOS HUMANOS DE OSAKIDETZA**